



BILERA AKTA			
NOIZ	Martxoak 22	ORDUA	arratsaldeko 19:00etan
NON	Arraztaloren egoitzan (Martintxo kalea 1, Alzibar)		
PARTAIDEAK	Kontxi Larrañaga, Pedro del Olmo, Iñaki Artola, Mari Jose Arbelaitz, Maria Jesus Aranburu, Javier Macicior, Lurdes Pagadizabal, Arantxa Saldise, Lurdes Lekuona, Jon del Olmo, Arkaitz Irastorza, Iñigo Martin, Domi Azpiroz, Jokin Gartzia		

1. Oarsoaldean gaixotasun psikikoa duten pertsonen datuak

Batzar orokorraren hasieran Oarsoaldean gaixotasun psikikoa duten pertsonen datuak banatu ziren. Pedro del Olmok azaldu du datu horiek Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroak emandakoak direla eta 2016eko azaroan egindako tailer irekietan ere erabili zirela.

Banatutako eskuorrian datuez gain gaixotasun psikikoa duten pertsonen arreta islatzen duen irudi bat ere azaltzen dela adierazi du. Batetik, botikak aipatzen ditu. Ikuspuntu horretatik pertsona hauek nahiko asetuta daudela azaldu du. Terapiaren inguruan, pertsonaren arabera jasotzen dutela azaldu du. Kronikoak diren kolektibo batek ez duela terapiarik jasotzen aipatu du, botikak bakarrik erabiltzen direlarik beraien gora-beherak kontrolatzeko. Falta zaiguna lan integrazioa dela esan du. Lan eta gizarte integrazioa falta zaigu. Arraztalo bide horretatik doa, eta zazpigarren urtea egin du.

2. Tailer irekiak

Jon del Olmok tailer irekien nondik norakoak azaldu ditu. Pasa den urtean urteroko sentsibilizazio ekintza antolatzerako garaian, zerbait desberdina azaldu nahi zela adierazi du. Tailer ireki batzuk antolatu ziren, jendeak horizontalki parte hartzeko. Orain arte antolatutako ekintzetan profesionalak zirela protagonista azaldu du eta entzuleen parte hartzea eskasa zela.

2016an tailer ireki batzuk antolatu zirela azaldu du gonbidatu ezberdinekin: gaixotasun psikikoa duten pertsonak, senideak, Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroko langileak, udaletako zinegotziak, Aldundiko jendea. Zerbait dinamikoa antolatu zen bakoitzak bere iritzia bota eta denak parte hartzeko forma horizontal batean.

Iñaki Artolak aipatu du tailerren emaitza nabaritu dela Errenteriako Osasun Mentaleko Zentroan. Tailerren ondoren egindako bileretan bertako langileek kezka azaldu dute tailerretan entzundakoarekin. Pedro del Olmok aipatu du badierudiela osasun mentaleko zentrotik ikusten dena eta ondoren kanpoan erabiltzaileek duten



ikuspegia ezberdina dela. Senideek tailerretan babesik gabe sentitzen direla adierazi dutela aipatu zuen eta Osasun Mentaleko Zentrokoek hori sorpresaz hartu dutela azaldu du.

Jon del Olmok tailerren balorazioa positiboa dela eta ondorioekin txostena prestatzen ari direla azaldu du. Txosten horretan tailerren partaideek esandako guztia bilduko da, laburpena egingo da eta ondorioak azalduko dira. Martxoaren bukaerarako prest egon behar du txostenak.

Jon del Olmok partaideen zerrendaren laburpena egin du. Guztira 91 pertsonak parte hartu zuten, gehienak Errenteriako tailerrean.

3. Baratzak eta kontsumo taldearen

Jon del Olmok kontsumo taldearen berri eman du. 2016ko udazkenean 35 partaidetik 40ra pasatzea planteatu zen. Pixkana igotzea pentsatzen zen arrian, bat-batean bost pertsona berri pasa zirela aipatu du. Gaur egun 40 pertsonako taldea dago. Martxoan bi baja izango dira eta apirilean 38 pertsona egongo dira taldean. Partaide kopurua baratzeen martxaren arabera eta baratzkien ekoizpenaren arabera zehaztuko da.

Pasa den urteko berrikuntza nagusia arrautzen txandakako kudeaketa izan dela azaldu du Jon del Olmok. Kontsumo taldeko zerrendaren arabera zortzi pertsonako taldeak egiten dira eta bakoitzak 2 astelehenetan arrautzak banatu eta eskaerak hartu behar ditu. Oraingoz ongi doa kudeaketa berria.

Iñaki Artolak baratzetako lanaren berri eman du. Pasa den urtean langile baten heriotza izan zen. Kontxi Larrañagak aipatu du orain arte Arraztaloko bi langile hil direla.

Pedro del Olmok aipatu du aurreko urtean langile berri bat kontratatu zela eta lantaldean gaur egun bost langile daudela.

Iñaki Artolak baratzetako datuak azaldu ditu. Gaur egun 18000 m² baratze eta 12000 m² sagarrondo kudeatzen dituzte. Makutsoko baratzeen berri ere eman du. Beste baratzeei arnasa emateko balio izan die lursail berriak. Hala ere aipatu du orain arazoak dituztela untxiekin, azkeneko uzta galdu baita jan egin dutelako. Udalarekin harremanetan jarri da arazoa nola konpondu aztertzeko. Lursaila ixtearen aukera aipatu da, baina errazena fokoetara joatea dela dio.

Horrez gain, Iñaki Artolak azaldu du 2016 hasieran zigilu ekologikoa lortu zela. Zigilu Ekologikoa lortzeko prozesuak lan egiteko era aldatzea ekarri du, batez ere hazi eta landare ekologikoak erosi behar izatea eskatzen duelako. Jarraipen zorrotza egin behar zaie hazi eta landareei.



Iñaki Artolak aipatu du desabantaila nabarmenena ekonomikoa dela, haziak garesti erosten direlako eta salmenta prezioak ez direlako igotzen. Jon del Olmok azaldu du hazien ekoizpen propioa martxan jartzeko erabakia desabantaila honen ondorioa dela. Gainera ekologikoan saltzen duten negutegi gutxi daude eta hornikuntza arazoak daude. Hazitik transplanteak egiten dira kaxatara eta aurten prozesua ongi doa.

Pedro del Olmok azaldu du momentu honetan lurrak badaudela, merkatua ere bai baina langileak falta direla. Pertsonak badaude lan egiteko baina dirua falta da.

4. Diru-kontuak

Jon del Olmok 2016ko balantzea azaldu du. Urtea 12000€ pasatxoko diru poltsarekin hasi zen eta 5000€-rekin bukatu zen. Aipatu du urteko aurrekontuaren zati bat falta dela beti eta urtez urte irtenbide ezberdina hartu izan dela. 2015ean langileak langabezira joan ziren hilabete batzuetan, eta horrekin 2015 eta 2016 urteetako aurrekontuak orekatu ahal izan dira. Urteroko diru-sarrerak udalaren diru-laguntza eta kontsumo taldeko salmentak izaten dira. Gastuetan langileria gastuak handienak izaten direla adierazi du. Hori ia aurrekontuaren hiru laurdena da. Urtero era batera edo bestera betetzen da aurrekontua.

Jon del Olmok azaldu du 2016 bukaeran 2017 aurrekonturako aukerak aztertzen hasita, hasierako planteamendu bat egin zela. Kontsumo taldeko diru sarrerak 40 pertsonakoa izanik 24000 € izango lirateke eta udalaren diru-laguntza 53000€-koa izango dela aurreikusten da. Aurtengo berrikuntza Aldundiaren balizko diru-laguntza izango litzateke. Urte bukaeran bilera bat eduki zen Gizarte Politikako departamentuarekin eta hitzez diruz lagunduko zutela adierazi zuten.

Beste finantziario iturrien inguruan, Jon del Olmok azaldu du pasa den urtean Foru Aldundian 3 diru-laguntza eskatu zirela esku hartzeko eta sentsibilizazio ekintzak antolatzeko, Eusko Jaurlaritzan diru-laguntzak bat nekazaritza ekologikorako eta Caixari lan integrazioan laguntzeko beste bat. Guztira 2000 € inguru lortu dira. 2017ari dagokionean, Eusko Jaurlaritzatik nekazaritzako laguntzetan 1000 € lortu dira eta Aldundian 2000€. Bestalde Aldundiari guztira 25000€ inguru eskatu zaizkio ekintza ezberdinetarako. Santander, Kutxabank eta Caixa banketxeetan ere diru laguntzak eskatu dira.

Azkenik enpresa pribatuekin egindako gestioak ere azaldu dira. Kirol elkarteetan egiten den bezala, enpresen laguntza bilatu nahi da lan integrazioa bultzatzeko. Horretarako lehenengo pausoa eskutitzak bidaltzea izan da. Oraingoz ez da erantzunik jaso. Enpresa horien artean daude: Leroy Merlin, Saltoki, Tajo, La Casa del Café, Geka, Niessen, Ulma Agrícola, Gexa eta Salto Systems. Iñaki Artolak aipatu du agian sindikalgintzatik landu behar direla aurreneko kontaktu hauek. Iñigo



Martinek enpresetara bidalitako eskutitzaren kopia eskatu du, berak bere kontaktuen bitartez banatu dezakeelako.

5. Enplegu Zentro Berezia

Azkenaldian egindako gestioak azaldu baino lehen, Jon del Olmok Enplegu Zentro Bereziari buruzko laburpena egin du. Zer den azaltzeaz gain, hau sortzeko Arraztalok topatu dituen oztopo guztiak aipatu ditu. 2013tik darama Arraztalok Enplegu Zentro Bereziak sortzeko legediaren zain. Orduetik legebiltzarrean mozio eta interpelazioen artean, 6 alditan landu dute gaia. Arartekoarekin eta Lanbideko zuzendariarekin ere bilerak egin dira. Gaur egun EH Bildu, PSOE eta Podemosekin kontaktuan daudela azaldu du. legezbesteko proposamen bat aurkezteko.

Bitartean Arraztalo Enplegu Zentro Berezia sortzeko plangintza ekonomikoa egiten ari da Oarsoaldearekin, noizbait dekretua ateratzen bada prest egoteko.

6. Eskola materiala

Bilerako partaideen artean eskola materialaren ale bat banatu da nolakoa den ikus dezaten. Jon del Olmok azaldu du nola egokitu eta maketatu den eta zein helburu duen. Webgunean zintzilikatuta dagoela adierazi du eta orain plangintza bat egin behar dela eskoletan nola martxan jarri eta Arraztaloren lanarekin nola lotu ikusteko. Helburua gaixotasun psikikoaren gaia eskoletan lantzea da, baina irakasle eta gurasoak inplikatu behar dira eta baratzetako bisitarekin lortu behar da eskolako lana.

7. Aldura

Javier Maciciorrek Aldura Elkartearen aurkepena egin du. Nola sortu zen azaldu du et egun dituzten erronkak zerrendatu ditu: azterketa soziologikoa egitea, eskola baratzak martxan jartzeko proiektua eta kafe hondakinak berziklatzeko proiektua. Arraztalorekin elkarlanean hauek martxan jartzeko ahaleginak egingo dituzte.

8. Azokak

Jon del Olmok azaldu du urteroko azoketan parte hartzen jarraituko dugula (Xanistebanak, Txerri Eguna eta Iturriozko jaiak). Xanistebanetako urtekariko artikulua ere egin behar dela adierazi du. Inork proposamenik baldin badu artikulua oraindik idatzi gabe dagoela adierazi du.

Oiartzunen, 2017ko martxoaren 22an